

Ordizian, **2013ko urriaren 31a** UDALBATZARRAK **Ohiko bilkura** egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

Igor Eguren Izagirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi	BILDU taldea
Juan M ^a .Guereñu Aldasoro	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregui	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza	PNV taldea
Judith Otegi López de Murillas	PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia	PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	PNV taldea
Bittor Iñaki Bolinaza Alzelai	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE(PSOE) taldea

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra and.



BERTARATZEAK ETA IRTEERAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

1. 2013ko irailak 26an egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.
2. Makroepaketaren kontrako mozioa
3. Gai Arrunten Batzordeko kide berriaren izendapena
4. 2014rako Ordenantza Fiskalen aldaketari hasierako onarpena.
5. Transferentzien kreditu espedientea onartzea
6. Ur-kontsumoen fakturazio era aldatzeko, Gipuzkoako Ur-Kontsortzioaren proposamena onatzea.
7. 2014ko ekitaldirako taxien tarifa igoera onartzea
8. Ordiziako Udalaren dirulaguntzak arautzeko ordenantza hasierako izaeraz onartzea.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:00 etan

AMAIERA: 20:10 etan



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.-2013ko irailak 26an egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2013ko irailak 26an ohiko deialdian egindako bileraren akta-zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaltu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0.

Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

2.- Makroepaketaren kontrako mozioa

Intsausti and.

Irakurri du mozioa.

Proposamena

Datorren Urriaren 14an eta 17an hamamaka Euskal Herritarren aurkako epaiketa hasten da Espainiako Entzutegi Nazionalan. Azken urteetan zain egon ondoren, batzuen kasuan gainera hamar urte baino gehiago, epaiketa azken urratsera heldu da.



Urteetako ibilbideak argi eta garbi erakutsi du, salbuespeneko legeriaren itzalean, lan politikoa egiten ari ziren euskal herritarrak zigortu dituztela. Ehunka izan dira herri honetan, hauteskundeetan parte hartu nahi izateagatik, herri proiektuak aurrera ateratzen lana egiteagatik, sektore desberdinen kezka bere egin eta politikoki erantzuteagatik auziperatu eta kartzelaratu dituztenak.

Euskal Herrian, konponbide eta bake haizea indartsu dabilen honetan, iraganeko egoeretara itzultzerik ez du onartzen gizarteak. Sufrimendu fasea gainditu eta elkarrizketa, akordioa eta aukera politiko guztiekiko errespetua oinarri izango duen egoera behar dugu. Eta kontrako norabidean ematen diren urratsak baztertu egin behar direla argi a da

Datorren urri honetarako aurreikusita dauden bi epaiketa hauek, eta jarraian burutuko direnak testuinguru berean emango direla kontutan hartuta, garai berria zabaltzeko Euskal Herriak agertu duen erabakiari eraso egiten diete, konponbide baketsua blokeatu asmoz.

Hau guztia kontutan hartuta, udal honek honako erabaki hau hartzen du.

- **Ez daitezela epaiketa politiko gehiagorik egin.**
- **Eskandaluzko instrukzio bidegabeetan oinarritutako epaiketa guztiak artxiba Daitezela.**
- **Prozedura judizial guztietatik etsaiaren zigor zuzenbidearen aplikazioa desager dadila.**
- **Aniztasun politikoa eta elkartze, adierazpen nahiz askatasun politikorako funtsezko eskubideak baldintzarik gabe errespetu daitezela.**
- **Elkarbizitza demokratikorako oinarri sendoak ezar ditzagula.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Intsausti and.

Azpimarratu du “Euskal Herrian bake haize dabilenean ez dutela horrelakorik onartzen” eta “gisa honetako epaiketek aro berria irekitzeko hartutako erabakiari eraso egiten diotela”.

Santamaria jn.

Adierazi du epaiketaren aurka dagoela eta auzipetu guztien absoluzioa eskatzen duela. Hori horrela bada ere udaletan mozio hauek tratatzea ez garamatzala inora. Nahiz eta garbi eduki epaiketak ez duela batere laguntzen normaltasunerako, mozioek ere ez “klima nahastea” laguntzen dutelako. Azkenik mozioan aipatzen den aniztasun politikoa eta oinarri sendoak ezartzearena betetzeko eskatu dio Bilduri.



Alkate jn.

Adierazi du urrian izandako alkateen Bake konferentzian izan zela, eta gogora ekarri du Irungo alkateak bere bizitzaz egindako gogoeta, eta nola esan zuen mahai hartan egotea poza ematen ziola aske sentitzen zelako bere irizpideak eta baita irizpide desberdinak entzuteko. Bestalde Santamaria jaunari gogorarazi dio epaiketa hau dela medio herriko elkarte bat ixtear dagoela, eta arrazoi horregatik bakarrik Udala zeozer esatera behartuta dagoela. Poztu da EAJk azken bi puntuekin bat egitea, baina ez du ulertzen nola esan daitekeen honelako mozioak ez direla tratatu behar udaletan.

Santamaria jn.

Berrito epaiketa honekin bere desadostasuna agertu du, eta nahiz eta tartean herriko elkarte bat egon, berrito dio honelako mozioak ez dutela ezertarako balio, eta nahasmena sortzen dutela, eta ziur asko Donostiako konferentzian horrelakoak ere entzungo zituela.

Alkate jn.

Berriz ere adierazi dio Bake Konferentzian gauza asko entzun zituela, eta Irungo alkatearen agerraldiak sorrarazi zizkiola sentimen unkagarriena. Baina berriz ere berretsio dio, Pleno honetan bigarrenagoz Ordiziako EAJk bere ahotan (Santamaria jaunarenean) muzin egiten diola herrian itxi daitekeen elkarte baten afera Udal Plenoan tratatzeko gaia dela onartzeari.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

3.- Gai Arrunten Batzordeko kide berriaren izendapena

Proposamena



Honen bitartez jakinarazten da Judith Otegi Murillas andreak uko egin diola Gai Arrunten Batzordeko kide izateari; izendapen hori ezohiko deialdian 2011ko ekainaren 30eko Osoko Bilkuran onartu zen.

Hori ikusita, Alkatetzak, Otegi andrearen ordean Bittor Iñaki Bolinaga Alcelay Gai Arrunten Batzordeko kide izendatzeko proposamena egiten du.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- 2014rako Ordenantza Fiskalen aldaketari hasierako onarpena.

Proposamena

Alkate jaunak aurkeztu du 2014rako udal tasa eta zergei aldaketari buruzko proposamena. Gaiaz eztabaidatu eta gero, 2013ko urriaren 23an egindako Plenorako Gaiaren Batzordeak honako hau erabakitzea proposatu zuen, beti ere 11/1989 Foru Arauak ezarritakoa betetzen aldera

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Honako hau onartu behin behingo izaerarekin 2014ko ekitaldian aplikatzeko.

A) 1. ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINA ALDATZEA, ONDASUN HIGIENZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.



B) 2.ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINA ALDATZEA, UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

C) 3.ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINA ALDATZEA, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

D) 4.ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINA ALDATZEA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

C) 5. ORDENANZA FISKALAREN ERANSKINA ALDATZEA, HIRI-LURREK IRABAZITAKO BALIOAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

D) 6. ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINA ALDATZEA, ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO EKINTZAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUENA.

E) 7.ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINA ALDATZEA, UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA.

2.- Akordioa 30 egunez jendaurrean ipintzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki oholean, interesatuek alegazioak eta iradokizunak egin ditzaten. Erreklamaziorik egon ezean, akordioa behin betiko onartutzat emango da, akordio berririk hartzen aritu gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Intsausti and.

Puntu honen aurkezpena egin du era honetan:

Bizi dugun krisi ekonomiko larri honen aurrean, Bildutik, Euskal Herriko ezkertiar eta soberanisten arteko indarren bilgunea garen heinean, argi dugu bizi ditugun garai zail hauetan non jartzen ditugun lehentasanak. Gutxien duten euskal herritarren eskubideak bermatzean hain zuzen ere. Benetako ildo ezkertiarra delako injustizia sozial eta politikoei aurre egiteko irtenbide bakarra. Krisia eragin duten formulek, krisia eta pobrezia areagotzeko baino ez dutelako balio. Guztiz formula desberdinak jarri behar ditugu mahai gainean instituzioetatik; gutxien dutenen mesedetan, gehien dutenek ekarpen handiagoa egin dezaten.



Udala ez da urtearen bukaeran etekinak ateratzeko dagoen enpresa bat, baizik eta herritarrei (eta hauen artean lehentasunez, gutxien daukatenei) zerbitzuak emateaz arduratu behar den erakunde publiko bat. Dena dela egungo krisi egoera larriak gastuaren berrazterketa sakona eskatzen du, lehentasunak ondo finkatuz, baina zorrotzasunez eta zuhurtziaz.

Progresibitatearen ildotik, politika soziala egiten saiatu behar gara, behartsu eta gutxien dutenen zerbitzuak ordaintzeko, gehienen dutenen zergak erabiliko ditugu. Zergen aplikazio progresiboarekin, sarrera gutxiena dituzten herritarrei, karga fiskala gutxituko zaie eta beraien irabaziekiko portzentaia txikiagoa ordainduko dute.

Gutxieneko soldata interprofesionalera iritsi ez edo oso gertu ibiltzen diren herritarrentzat, Ongizateetik zein kontu hartzaitzatik bideratzen ditugun laguntzen bitartez, bai hobari bai zerga salbuespen moduan. Honez gain, zailtasunak dituzten herritarrei, epekako ordainketa aukera ahalbidetzen jarraituko dugu.

Iruzur fiskala ekiditeko neurriak aplikatzen saiatuko gara.

Honako puntuetan laburbiltzen ditugu erabilitako printzipio nagusiak:

- Ekitatea.
- Progresibitatea
- Birbanaketa. Gehien duenak, gehiago ordaintzea, gutxien duenaren mesedetan.

Honenbestez, bizi dugun krisi ekonomikoaren aurrean, KPlaren arabera igoera egitea proposatzen dugu.

Santamaria jn.

Adierazi du ados badaude ere orokorrean aurkeztutako proposamenarekin (KPlaren arabera igoerarekin), ez daudela ados proposamenaren honako atal hauekin:

- Hutsik dauden etxebizitzetarako gaitasuna, etxebizitzak merkaturatzeko helburua betetzen ez duelako (aipatu du iaz arrazoitu zuela aurka egoteko zergatia).
- Zabor biltzaile zerbitzuaren %1,5aren igoera, atez ateko kostuaren datuak eman ez direlako, eta horregatik ezin da ondorioztatu igoera egokia den ala ez.
- Hobariak, bere ustez ez da progresibitatea modu egokian aplikatzen, eta hori oso garbi ikusten da famili ugarien kasuan (oso restriktiboa da eskatzen den dirusarrera kopurua kontuan izanda) eta bestalde bizigune alokairu programan etxebizitzak dutenei hobaria aplikatzea proposatzen du.



Dubreuil jn

Tasak, zergak eta prezio publikoak ezartzerakoan alderdi politikoez aintzat hartu ohi dituzten helburuak nahiko berdintsuak dira. Ezkerretik eskuinera, guztiok ditugu ahotan udal-zerbitzuei eustea, sarreraren eta gastuen arteko orekari eustea, gehien dutenek gehiago ordaindu beharra, eta baliabide gutxien dutenek gutxien ordaintzea. Eta guztiok bat etorriko gara esaten badugu udalaren eta udalak kudeatzen dituen gizartearen baliabideen errealtateari erreparatu behar diogula.

Horrela, oro har. Ziur naiz afera horietan guztiok gatzela bat.

Seguruenik, ez gara bat etorriko lehentasunez eutsi beharreko udal-zerbitzuei batzuek eta besteek ditugun irizpidetan, ezta sarreraren eta gastuen arteko oreka nola eutsi dagokionean ere. Hortxe ditugu desadostasunak batzuen eta besteen artean.

Urteko aurrekontuetan ikus daitezke argien desadostasun horiek, horietan ikusten baita non jartzen duen dirua unean-uneko gobernariak. Eta aurrekontu horietan irudikatzen da sarreraren eta gastuen arteko oreka. Eta aurrekontu horietan, aurreikuspenetan behintzat, azter dezakegu diru-sarrera gehiago edo gutxiago behar dugun, gastuak murriztu behar ditugun, edo egokiagoa den gastuak areagotzea partida batean edo bestean, eta halakoak. Horrela ikus dezakegu tasak, zergak eta prezio publikoak igo beharrean gauden edo ez. Eta horixe da, hain zuzen ere, eduki ez dugun eztabaida. Nahiz eta dagoeneko esan diguten lehen zirriborroa bukatuta edo ia bukatuta zegoela. Alegia, ez dakigu zein izango den 2014rako gastuaren aurreikuspena; hortaz, nekez landu ditzakegu sarrerak.

Horixe da udal-gobernuaren proposamenari ekarpenak ez egiteko lehenengo arrazoia. Berrito ere, alde batera uzten dira tasei eta zergei buruzko hausnarketa, eztabaida eta erabakia; hau da, udalaren sarreraren ia erdia hausnarketatik, eztabaidatik eta gastuen inguruko erabakitik banandu egiten da. Hots, ez dakigu zertarako nahi dugun diru gehiago bildu.

Bestalde, sozialistoi gustatuko zitzaigukeen, esaterako, krisiaren aurkako mahaia eratu izan balitz, krisiaren aurkako udal-plana eguneratu izan balitz, eta tasei, zergei eta prezio publikoei buruzko hau foro horretan aztertu izan balitz. Horrela, diru-sarrera hauei buruz hausnartuko genukeen eragiten digun krisiaren testuinguruaren barruan. Alabaina, hori ez da posible izan Bilduk foro hori eratu nahi izan ez duelako. Horixe da udal-gobernuaren proposamenarekin bat ez etortzeko beste arrazoi bat. Hortaz, horixe da proposamenari gure sostengua ez emateko bigarren arrazoia.

Bestalde, kontuan hartu behar dugu Estatuan prezioak gehien igotzen diren lurraldea Gipuzkoa dela. Espainian soilik Euskadin igo ziren prezioak uztailan. *Abuztuan Gipuzkoa izan zen Estatu osoan inflaziorik altuena izan zuen lurraldea.*

Horri guztiari gehitu behar diogu Ordiziako familiek soldatak ez igotzearen, enplegu-erregulazioko espedienteen, langabeziaren nahiz soldata jaitsieren ondorioz pairatzen duten okertze ekonomikoa, pentsioek erosteko gaitasuna galtzen dutela, eta soldata publiko baten menpe daudenei beren diru-sarrerak murrizten zaizkiela, eta urtetik urtera soldata izozten zaiela; hortaz, prezioei ere eutsi egin



beharko genieke. Baina, ikus dezakegunez, hori ez da gertatzen. Prezioek gora egiten dute, herritarren sarrerek behera. Egoera horretan ez da zilegi proposatzen zaigun igoera.

Zergaduna dagoeneko aski zigortuta dago prezio igoera horrekin; ez dago gure prezio igoera pairatzeko moduan. Bilduren proposamenak sakondu egiten du kontsumoaren eta herritarren gaineko presioa. Horixe da udal-gobernuaren proposamenari ezezkua emateko hirugarren arrazoia, azken urteotan egindakoari helduta.

Gure iritziz, halaber, zergak igotzearen ondorioz ekonomia uzkur daiteke. Bereziki krisi-garaian. Zergak igotzeak murriztu egiten du zergapekoen gasturako ahalmena. Horrekin kontsumoa murriztu egiten da. Eta horrekin, jarduera bera. Udal-gobernuak, zergaren gaineko presioa areagotuta, ekonomia uzkuritzen laguntzen ari da. Zenbat eta diru-sarrera gehiago behar izan tasak eta zergak ordaintzeko, orduan eta diru gutxiago gasturako eta kontsumorako. Tasak eta zergak igota herritarren errenta erabilgarria murrizten dugu. Tasak eta zergak igota, epe motzerako hazkundera gertatzea oztopatzen duen zama areagotzen ari gara. Horixe da udal-gobernuak proposatzen digun igoeraren aurka egoteko laugarren arrazoia.

Ordiziako PSE-EEko kideon iritziz, nahitaezkoa da Ordiziari arnasa ematea; izan ere, % 14ko langabezia-tasa dauka (689 langabetu irailaren 30ean; 2008an 285 langabe genituen). Eskualdeko tasarik altuena da, eta, gainera, lanean ari direnetatik askok soldata izoztuta daukate, edo haien enpresak enplegu-erregulazioko espedienteak daukate, edo konkurtso-prozeduran. Ezin ahaztuko dugu pentsiodunek erosteko gaitasuna galdu dutela. Ordiziarrek ongi merezita dute, krisi-garai hauetan, arnas pixka bat. Egungo krisi-garaian, ordiziarrek hartu behar ditugu aintzat. Herritarrei besterik gabe zergak jarri baino, udalak gastu arrunta murriztu behar du, eta baliabideak optimizatu kudeaketa hobeto batekin.

Hitz batez, zer proposatzen dugu? Legealdiaren hasieratik proposatu izan dugun hori bera. Tasak eta zergak udalaren egoera ekonomikora, eta ordiziarrek pairatzen duten errealitate ekonomikora egokitzea. Aintzat hartzea herritarrek pairatzen duten egoera ekonomikoa eta soziala: energia-kostuen eta elikagaien igoera neurrigabea, eta prestazioak, pentsioak eta soldatak izoztea. Herritarrak instituzioen keinuak behar ditu, krisi honetatik albat azkarren ateratzeko, eta, areago oraindik, 2014. urte krudela aurreikusten denean.

Hortaz, eta laburbilduz, ez diogu gure babesik emango Bilduk 2014rako aurkeztu dituen tasen eta zergen proposamenari:

1. Aurkeztutako zerga-politikak ez duelako inolako loturarik ezein erreferentzia-marko orokor eta adosturekin, tokian tokikotasunetik krisiari aurre egiteko jarraitu beharreko politikari dagokionez.
2. Gastuari buruzko eztabaidarekiko inolako loturarik gabe aurkezten delako. Hortaz, gure iritziz, proposamena dirua biltzeko baino ez da.
3. Bere garaian aurka egin genien zerga-neurriak ezartzen dituelako (OHZren gaineko karga).



4. Zerga-neurriei aurre egiteko beharrezkoa den informazioa emango duten hainbat zerga-neurrik ekarriko dituzten ondorioei buruzko txostenik edo analisisirik ez duelako (zergapetutako etxebizitza huts alokairuko merkatuak jarriak).
5. Beren zerga-politikak ekonomiaren gaineko 'ondorio uzkurtzaileak' dituelako.
6. Eta, bereziki, beste urte batez, berriro ere, bilduk krisia ordiziarren bizkarraren gain jartzen duelako, pixka bat gehiago.

Alkate jn.

Lehenengo Santamaria jaunari erantzun dio honela:

Hutsik dauden etxebizitzetako gainkargaren gaiari dagokionez, konfirmatu du alokairuan jarri nahi dituzten jabeek aurten ez zaiela kobratuko gainkarga; bestalde aurreratu du alokairu soziala bultzatzeko programa martxan jartzeko oinarrien zirriborroa prestatuta dagoela, eta datorren astean banatuko dela Udal talde guztiei, garbi utziz asmoa ez Ordenantza bezala, baizik programa gisa tramitatzea dela.

Zabor bilketa tasaren %1,5eko igoerari dagokionez, adierazi du egia dela oraindik atez atekoaren kostuak ez direla atera, eta Sasietak %8^a igotzea proposatu duela, eta baita 2002. urtetik zerbitzuaren %60^a Udalek eta %40^a Sasietak ordaintzen duela, eta ez dakiela zer pasatuko den %100^a Udalaren gain zerbitzu osoa jartzen denean. Bukatu du esanez kontuhartzaileak ateratako datuen arabera, gaur egun dagoen tasarekin zabor bilketa zerbitzuan soberakina ematen dela, eta horregatik planteatzen den igoerarekin nahikoa dela datorren urteko kostuari aurre egiteko.

Hobariaren gaiari dagokionez Santamaria jaunari galdetu dio ea proposamen zehatzik ekarri duen.

Dubreuil jaunaren interbenzioari dagokionez, ez diola erantzungo puntuz-puntu adierazi ondoren, esan du tasa eta zerga igotzeko proposamena, betiere aurrekontua ezagutu gabe egiten dela, eta adibide bezala EAJ-PP adostutako akordioa jarri du; bestalde, zabor bilketaren zerbitzuari dagokionez, azpimarratu du Zumarragako Udalak %15eko igoera planteatu duela; krisi mahaia osatzeko gaiari dagokionez, konfirmatu dio berriro osatuko dela baina eskatu dio Udalari uzteko gaia hau garatzeko erritmoa jartzen. Helburua presio fiskala areagotzea delaren afirmazioaren aurrean, esan dio Udal honen helburua ez dela superabita lortzea, eta ez zaiola iruditzen KPlaren igoera aplikatzea presio fiskala igotzea dakarrenik. Bukatzeko Dubreuil jaunak emandako langabeziei buruzko datuak eta abar, baieztatu ditu eta gogorarazi dio egoera honi aurre egiteko egin diren ekintzak: lanpoltsa berritzea, Udalak finantziatutako enplegu programa 2013, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako enplegu programa 2013....., denak enplegua sustatzeko.

Intsausti and.

Santamaria jaunari gogorarazi dio, nahiz eta aukera izan ez zuela inongo proposamenik egin, eta horregatik ez duela orain aukerarik ikusten hobarietan aldaketak egiteko.



Santamaria jn.

Erantzun dio Plenoko Gaiien Batzordearen bilera ordua aurreratu egin zela, eta berak ez zuela etortzerik izan eta horren berri eman ziola alkateari, eta horregatik ez zuela proposamenik egiterik izan.

Alkate jn.

Adierazi du aurrekontuak onartzeko garaian eman zela eztabaida hau, eta berriro gogorarazten diola, orain ordu normaletan egiten direla bilerak, ez bera alkate zen garaian bezala, eta nahiz eta berak etortzerik ez izan bere taldean badaudela 5 zinegotzi interesa eduki ezkerreko proposamenak ekar zezaketeenak.

Santamaria jn.

Berriro dio pena bat dela proposamenaren %90ekin ados egonda, gai hau honela geratzea.

Alkate jn.

Santamaria jaunari esan dio hau ez dela modu zintzoa gauzak egiteko, proposamena badauka nahiko denbora izan duela aurkezteko, eta nahi badu ere proposamena prestatuta badauka oraindik garaian dagoela proposamena aurkezteko.

Ikusita ekitaldi honetan ez dela posible proposamen berri bat adostea, Santamaria jaunak proposamen konkretu bat ez duelako, eta espediente hasierako izaeraz onartuko denez, alkateak adierazi du prest dagoela gai hau irekita utzi eta behin-betiko onarpena eman aurretik gai hau adosteko ahalegin bat egitea; ondoren bozketa egin da:

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



5.- Transferentzien kreditu espedientea onartzea.

Proposamena

2013ko Aurrekontuaren exekuzioan behar berri batzuk sortu dira eta baita ere ikusi da hainbat partidetako kreditua ez dela beharrezkoa izango.

Beharrak eta soberakinak atal berekoak direnean Alkatearen dekretu baten bidez konpontzen dira, baina atal talde ezberdinak erabili behar direnean Udalbatza da eskumena duena.

Prestatu den espedientea 162.525,86 euroko kreditu igoerak aurreikusten ditu eta finantziaketa egokia dauka.

2013ko AURREKONTUA KREDITU IGOERA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
ERAGIKETA ARRUNTAK		
933.010.00.01	Maileguen amortizazioak	7.180,00
162.111.00.05	Bizitza aseguruak	2.300,00
227.121.00.01	Eraikin garbiketa hitzarmena	35.000,00
212.313.81.01	Instalazioen mantenimendua	500,00
470.322.10.01	Goiekiri ekarpena	5.952,60
227.422.11.02	Eraikinen segurtasuna	330,00
211.434.12.01	Oianguko eraikinen mantenimendua	2.000,00
226.434.12.99	Hainbat gastu	1.484,80
226.442.10.99	Hainbat gastu Zabor Bilketa	15.100,00
110.452.20.01	Kiroldegiko zuzendariaren soldata	17.000,00
160.452.20.01	Gizarte aseguruak	5.900,00
131.454.11.01	Aldi baterako pertsonalaren kontratazioa	2.120,00
226.454.12.99	Euskal Jaiak. Asteazkena	8.300,00
210.511.00.01	Kale konponketak	5.000,00
230.622.31.01	Peri berezikoarako bidaiak,..	1.000,00
226.751.00.06	Aktibitateak	1.200,00
		110.367,40
KAPITAL ERAGIKETAK		
625.111.00.99	Udal Gobernu Organotako tresneria	3.500,00
601.434.12.01	Oianguko bidearen konponketa	3.576,76
625.434.12.99	Oianguko beste tresnak	931,70
622.435.00.01	Eraikinen erosketa eta prestaketa	20.000,00
623.442.10.02	Auzo konpostarako instalazioak	8.000,00
623.442.10.04	Zakarrontzi selektiboen erosketa	400,00



622.451.10.04	Musikoentzako lokalak egokitzea	12.000,00
622.469.10.02	Gazte lokalean konponketak	3.750,00
		52.158,46
	GUZTIRA	162.525,86

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
ERAGIKETA ARRUNTAK		
332.010.00.01	Maileguen interesak	22.000,00
224.111.00.99	Udalaren erantzukizunaren aseguruua	4.000,00
231.111.00.01	Asistentzi dietak	1.972,96
470.313.99.01	Goiekiri ekarpena	617,15
226.444.00.06	Garapen iraunkorreko aktibitateak	5.000,00
470.444.00.01	Goiekiri ekarpena	2.839,07
470.445.00.01	Goiekiri ekarpena	680,96
470.751.00.01	Goiekiri ekarpena	665,72
480.313.99.08	Adin gutxiko umeen familiei laguntza	15.000,00
227.432.10.07	Ikerketa teknikoak	72.000,00
471.622.40.01	Enpresentzako transferentziak	3.750,00
		128.525,86
KAPITAL ERAGIKETAK		
622.434.12.01	Oianguko teilatuaren konponketa	7.000,00
622.435.00.01	Torrearen bergaitzeko lanak	10.000,00
623.435.00.02	Pabiloi berriaren argiteriaren aldaketa	5.000,00
601.511.00.02	Obra txikiak	12.000,00
		34.000,00
	GUZTIRA	162.525,86

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Ez da izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 1 (PSE-EE (PSOE)1)

Abstentzioa: 5 (EAJ 5)



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Ur-kontsumoen fakturazio era aldatzeko, Gipuzkoako Ur-Kontsurtzioaren proposamena onatzea.

Proposamena

Ordiziako Udalak, Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak egindako proposamenaren arabera eta Gipuzkoako Ur Kontsurtzioko Uren Zerbitzuaren Ordenantza Erregulatzailaren ezarketaren inguruan erabaki du:

- 2014-ko Urtarrilak 1-etik aurrera hau eguneratu egingo dela eta kontsumo-tarteak, etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren menpekoan izango direla.
- Beharrezko xedeetarako, etxebizitza bakoitzean bizi den biztanle kopurua, Udalak emandako azken erroldan azaltzen direnak izango dira.
- Pertsonarik erroldatuta ez dagoen etxebizitzaren kasuan, kontsumo guztiari aplikatuko zaion prezioa, goiko tartekoa izango da (330 litro, biztanle eta eguneko baino gehiago)

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Adierazi du hau Gipuzkoako Ur-kontsurtziotik etorri den proposamen honen bitartez, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera kontsumo-tarteak, etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren menpekoan izango direla.

Santamaria jn.

Adierazi du proposamenaren azken parrafoa "Pertsonarik erroldatuta ez dagoen etxebizitzaren kasuan, kontsumo guztiari aplikatuko zaion prezioa, goiko tartekoa izango da (330 litro, biztanle eta eguneko baino gehiago), ez dela ulertzen eta argitzeko.



Maiza and.

Adierazi du Ur-kontsorzioko fakturazioa ulertzen oso zaila dela, eta gogoratu du bere egunean gai honi buruz hainbat kexa izan baziren ere, ez zela batere kontuan hartu, eta bukatu du esanez honelako erabaki bat hartu aurretik garbi eduki behar dela zer suposatzen duen.

Kontuhartzaile jn.

Adierazi du zerbitzu hau ez dagoela Udalaren eskuetan, eta horregatik esplikazioa Ur-kontsortzioari eskatu behar zaiola.

Proposamen hau gai-zerrendatik ateratzeko bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE), EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, puntu hau gai zerrendatik atera du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- 2014ko ekitaldirako taxien tarifa igoera onartzea

Proposamena

AGITAX, Gipuzkoako Taxisten Elkarteko presidente Emilio Fernandez Fidalgo jaunak aurkeztutako idatziaren berri eman da. Idatzi horretan, auto-taxien herri barruko 2014ko tarifak berrikustea eskatzen du, ondoren zehazten den eran:

2014ko HERRI BARRUKO TARIFAK			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA	EGINDAKO KM	ITXARON ORDUA
TARIFA 1*	3,4588	1,0828	20,6819
TARIFA 2**	3,4588	1,7269	32,5052

* Lanegunetan, 07:00etatik 22:00ak arte.

** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 7:00ak arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.



AGITAXek tarifen igoera justifikatuz prestatu duen txostena ekonomikoa ikurik

Herri barruko gaurko dauden tarifak, hauek dira:

2013ko HERRI BARRUKO TARIFAK			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA	EGINDAKO KM	ITXARON ORDUA
TARIFA 1*	3,3943	1,0626	20,2963
TARIFA 2**	3,3943	1,6947	31,8992

Gauzak hala, Plenorako Gaien Batzordeak honako hau proposatzea erabaki du:

AKORDIO PROIEKTUA.

1.- Onartzea 2014ko auto-taxien tarifa aldatzea, esposizio-atalean esandakoaren arabera.

2.- Erabaki hau Goiekiri jakinaraztea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0.

Alkate jaunak ondorioz, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



8.- Ordiziako Udalaren dirulaguntzak arautzeko ordenantza hasierako izaeraz onartzea.

Proposamena

Diru-laguntza eta bestelako laguntza publikoen prozedurei aplikatzeko erregimen orokorra ezartzea da ordenantza honen helburua, betiere diru-laguntza horiek kudeatzeko ardurua Ordiziako Udalarena denean edo haren Organismo Autonomoena eta Merkataritza Elkarreana (euren kapital sozial osoa Udalari dagokion Merkataritza Elkarreana).

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua zehazten denaren arabera, Udalari dagokio ordenantzak onartzea.

Aipatutako Legearen 49 artikulua zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantzak honako prozedura jarraitu beharko dute:

- a) Osoko bilkuraren hasierako onarpena
- b) Jende aurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
- c) Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behin betiko onarpena.

Erreklamaziorik ego iradokizunik aurkeztuko ez balitz, hasierako erabakia behin betiko bihurtuko da, erabaki berririk hartzeko beharrik izan gabe.

Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Ordiziako Udalaren diru laguntzak arautzeko Ordenantzari hasierako onarpena ematea.

2.- Ordenantza jendaurrera zabaltzea iragarki taulan eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko apean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebatziko ditu iradokizun hauek.

3.- Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartutko dira.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaltu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:



Maiza and.

Adierazi du dirulaguntza eta bestelako languntza publikoen prozedurei aplikatzeko erregimen orokorra ezartzea dela ordenantza honen helburua, beraz ordenantza enbor nagusia izango da, eta bere garapenerako sail bakoitzak oinarri espezifikoak onartu beharko dituzte, garbi utzita helburua izango litzatekeela dirulaguntza guztiak deialdi bakar batean ateratzea. Ordenantza egiteko oinarri bezala inguruko Udalek onartuta dituzten ordenantzak erabili dira, eta abiapuntutzat hartu den ideia da Legeak oinarri orokorrari uzten dizkion alderdi batzuk garatzea, baina aldi berean, nahi marjena uztea, oinarri espezifikoaren garapen hori osatzeko modua izan dezaten, kasu jakin bakoitzean gertatzen diren zirkunstantzietara egokitze aldera.

Dubrueil jn

Adierazi du dirulaguntzak emateko zehaztu egin beharko litzatekeela nortzuk kontsideratzen diren erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak.

Alkate jn.

Adierazi du sail bakoitzak egin beharko duela lan hori, eta kontuan eduki beharko dela aurrekontuak prestatzeko garaian.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0.

Alkate jaunak ondorioz, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



9.- Eskaerak eta galderak

Ez dago.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.

